

VULTOURIS IBILBIDEA: Santa Kolonbako arroila (Nafarroa)

ZAILTASUNA:
MODERATUA



Aizpurgi herrira doan errepidean dagoen legar-hobi zahar batetik abiatzen da bidexka (aparkalekua dago).

Igoera labur baten ondoren, bidea Aizpurgiko arroilaren iparraldeko hegaletik doa; Zaraitzu ibaiak zatikatutako arroila da hori, eta errepideak zeharkatzen du, baso, harrizta eta hartxingadien artean. Borda baten hondakinen ondotik pasa eta gero (landarediak ia ezkatututa), jaitsiera labur baten ondoren Egurzanos ibaiaren gaineko zubira iritsiko gara.

Hortik aurrera, bideak gora egiten du ibaiaren ertzetik landaredi sarri batetik barna. Aurrez aurre dagoen mendi-hegalean Ososkiako leizearen ahoa ikus daiteke (mairuaren leizea ere esaten zaio); gizakia historiaurretik bizi izan da bertan.

IBILBIDEAREN FITXATEGIA



Ibilbidearen distantzia: 3,09 km
Gutxieneko altitudea: 559 m
Gehiengo altitudea: 685 m
Gehiengo desnibela: 126 m

Centro de Interpretación de la Naturaleza de Ochagavía
31680 OCHAGAVÍA (Navarra)
Tel.: (+34) 948 890 680
oit.ochagavia@navarra.es

<http://es.wikiloc.com/wikiloc/view.do?id=1761697>
Argibide gehiago: www.vultouris.net · info@vultouris.net



Ibaia mendi-zintzurran sartzen den gunera helduta, gurutzatu egin behar da. Ur-emari handia bada, oinetakoak kendu beharko ditugu ibaiaren zeharkatzeko. Haitzean sartutako burdinazko maila batzuk baliatu ahal izango ditugu horma pasatu eta bidea berriz ere hartzeko. Azkenik, basurdeek egindako bidexka batetik igoko gara beste bide zahar bateraino iristeko; lepo batera eramanen gaitu horrek. Aizpurgi ikusiko dugu mendi-lepo horretatik. Basoberritzeko landatutako pinudi bati jarraituta, ibilgailuraino iritsiko gara bidexkatik. (Iturria: Senderos por el Pirineo Navarro)

Mota horretako beste formazioetan bezala (ibai-zintzurrak), Santa Kolonba eta Aizpurgi oso babesleku garrantzitsuak dira fauna eta landaredi errupikolarentzat; izan ere, bertan aise ikusten ahal dira bertako ezaugarri diren zenbait espezie, besteak beste, sai arrea, belatxingak, bele txikiak, sai zuria...